



ARTROSIA

Giltzaduraren barruko
gorputzak

Endekapen eta hanturazko artropatiak: sailkapena



1- Osteoartrosia: endekapen- artrosia
2- Artritis erreumatoidea
3-Espondiloartropatia seronegatiboak
4-Gaztaroko artritis kronikoa
5-Kristalek eragindako artritisa
5.a- Hezueria
5.b-Pirofosfato kaltziozko kristalengatik
5.c- Hidroxiapatitazko kristalengatik
6-Artropatia neuropatikoa
7-Artritis septiko akutua




Artrosia




Osteoartritis edo artrosia endekapen prozesu bat da. Prozesu hau giltzadura sinobialetan sortzen da.

Aurretik usten zen zahartzearen ondorio normala zela.


Gaur egun, badirudi faktore askoren menpe dagoela (giltzaduraren osotasuna, aurrejoera genetikoa, hantura lokala...). Artrosia bi motatan sailkatzen da:



60 urtetik gorako biztanlegoaren %80k zeinu erradiologikoak ditu, nahiz eta %25a diagnostikatuta egon (klinikaren bidez).



Artrosia



Osteoartrosia: patogenia

Artrosia errepikatutako mikrotraumek edo beste kausa batzuek eragindako kartilago artikularren kaltearen ondorioa da. Konpromiso artikularra asimetrikoa da. Eskuetan, erasana beti distala da. Aurreratutako kasuetan itxuraldatzeak ikus daitezke.





- 1-Giltzaduran kartilagoa astiro-astiro desagertuz doa eta batzuetan alboko hezurra begi bistan dago.
- 2-Hezur hau bolizko, gogor eta distiratsu bihurtzen da (esklerosi subkondrala).
- 3-Hezuraren bazterretan ezproi batzuk osatzen dira. Ezproi hauek osteofito izena dute.
- 4-Hasieran ez dago alteraziorik ez kapsulan ezta mintz sinobialean ere, baina errepikatutako gainkargaren menpe egoteak giltzaduraren gizentze arina fibrosiarekin eragiten du.

Kondrozitoek **erantzuten dute** kalte eragiten duten entzimak askatzen eta konponketa egiteko erantzun desegokiak ematen.

Osteoartrosia: patogenia

Giltzadura-kartilagoan hutsegite bat agertzen da; kartilago, hezur eta sinobialaren degradazio eta konponketako prozesuek eragindako asaldur bat da.

Artrosia garapenean, kondrozitoak dira zelularik garrantzitsuenak.



Osteoartrosia: klinika



Normalean, klinika 40 urtetik gorako pertsonetan agertzen da.

✓ Aktibitateak min handia eragiten du. Ordea, atsedetak min arina sortzen du.

Gaixotasuna aurrera doan neurrian, gutxienezko mugimenduekin mina sor dezake, bai atsedendian bai gauez.

✓ Martxaren hasieran mina handiagoa izaten da, baina denbora pasa ahala, gutxituz doa.

Mina handiagotzen bada, trauma batek edo kristalezko gaixotasun batek eragindako sinobitisaren ondorioa dela susmoa eduki behar dugu.

✓ Gaixotasunak aukeratutako gorputz-atalak erasaten ditu : eskuak, belauna, aldaka, gerri-bizkarrezurra eta lepo-bizkarrezurra, besteak beste .

✓ Ezintasun funtzionala

✓ Giltzadurako isuriak (sinobitisa badago artrosiarekin batera)

✓ Itxuraldatzeak

✓ Nerbioen harrapaketa sintomak (batez ere, lepo eta gerri bizkarrezurraren parean)




Osteoartrosia: klinika



Artrosiak ez die erasaten modu berean giltzadura guztiei. Gainera, erasana asimetrikoa da. Giltzadurako isuririk badago, **isuriak ez dauka hanturazko ezaugarriarik (200-2000 leukozitoak/zk).**

- Isuri artikularrak ager daitezke.
- Krepitazioa sortzen da kartilagorik gabeko giltzadura gainazalen arteko talka dela eta.
- Osteofitoen haztapena .





Likido sinobialaren ezaugarriak

Likido sinobialaren mota	Aspektua	Zelularitatea (zelula kopurua/ mikrolitroa)
<i>Normala</i>	Argia, koloregabekoa, likatsua	<200 <neutrofiloen % 25
<i>Ez hanturazkoa (1.mota) Artrosiaren berezkoa, traumatismo geroko sinobitisa, osteokondritis disekatzailea, kolagenosia</i>	Argia, horia eta likatsua	200-2000 <neutrofiloen % 25
<i>Hanturazkoa (2.mota) Hanturazko artrosiaren berezkoa, artritis erreumatoidea, espondiloartropatiak</i>	Arrea, urtsua ,xantokromikoa	2000-50000 >neutrofiloen %50
<i>Zornetsua (3.mota) Artritis septikoa</i>	Zornetsua, lodia, opakua, glukosa gutxikoa	>50000 >neutrofiloen % 75

Artrosia: diagnostikoa



Diagnostikoa klinikan eta erradiografia sinplean oinarritzen da.

Beharrezkoa da giltzadura-suntsiketaren beste kausa batzuekin diagnostiko diferentziala egitea (hanturazkoa, septikoa...) laborategiko analisien bitartez eta klinika eta irudi probak erabiltzen.




Artrosia: diagnostikoa





Diagnostikoa, klinikan eta erradiografia sinplean oinarritzen da.

Beharrezkoa da giltzadura-suntsiketaren beste kausa batzuekin diagnostiko diferentziala egitea (hanturazkoa, septikoa...), laborategiko analisien bitartez (klinika eta irudi probaz gain).






Osteofitoa C6-C7
foraminal zuloan
(konjuntzio-zuloan)



Estenosis foraminal





Osteofitoa C6-C7
foraminal zuloan
(konjuntzio-zuloan)



Heberden-en noduluak,
falangikoarteko distal giltzaduran eta
Bouchard-en proximalean.





Giltzadura-espazioko gutxitze asimetrikoa




Osteofitoen agerpena

Osteofitoak, hutsuneen zabaltasunaren gutxitzea eta ornoarteko giltzaduren hipertrofia, kanal estenosiarekin lotuta.




Aurreko osteofitoak (gezi zuriak, irudi A) eta eskuineko ornoarteko giltzaduraren hipertrofia (irudi B). Honek, konjuntzio-zuloaren zabaltasuna gutxitzen du. (gezi beltza)





ZERBIKAL-LEPOKOA (baina maila ezberdinetan)

Artrosian osteofitoek, hutsuneen zabaltasunaren gutxitzeak eta ornoarteko giltzaduren hipertrofiak kanal estenosia eragiten dute edo nerbio espinalen harrapaketa .



© MAYO FOUNDATION FOR MEDICAL EDUCATION AND RESEARCH. ALL RIGHTS RESERVED.



Orno-muina

Gezi zuriak:
osteofitoak dira.
Kanal estenosia
eragiten dute.

Artrosia: tratamendu medikoa

Tratamenduaren helburuak hauek dira: mina kontrolatzea eta ezintasuna gutxitzea.

Horrela, bizimoduaren kalitatea hobetuko da.

Botikarik gabeko tratamenduak: pisuaren galera, ariketa fisiko-programak eta pazientearen heziketa.

1- Analgesikoak : Parazetamola

HKEE: hantura kontrako ez-esteroideoak

Giltzadura barneko glukokortikoideak

2- Kondrobabesleak: Glukosaminglikanoak

Medikazio aukeraketa gaixotasunaren larritasuna, guneko hantura eta aurretik erabilitako terapien menpe dago.



Artrosia: tratamendu kirurgikoa



Tratamendu kirurgikoa erabiltzen da, agresibitate txikiagoko terapiek funtzionatu ez dutenean.

1-Gaur egun ez dago gomendaturik: giltzaduraren irrigazioa, garbiketa edo desbridadeka artroskopikoa, hezurr subkonkralaren zulaketak eta sinobektomia artroskopikoa


2-Kondrozito autologoak mentuak (injertuak) akatsik arinenetan

3- Giltzaduraren erabateko artroplastia.

Garbiketa
artroskopikoa



Hezur subkondraleko zulaketa



Sinobektomia



Giltzaduraren barneko gorputz askeak



Giltzaduraren barneko gorputz aske bat da : kartilagoaren zati bat, hezuraren zati bat edo gorputz arrotz bat izan daiteke. Maiz, belauna da giltzadura barneko gorputz askeek erasandako giltzadura.

Arazo larri baten ondorioa izaten da:

- ✓ Artrosia
- ✓ Haustura
- ✓ Gorputz arrotza (giltzadurako zaurietan)
- ✓ Nekrosi abaskularrak giltzadura edo kartilago zati bat hezurretik banatzen dela eragiten du (osteokondritis disekatzailea deitzen da).
- ✓ Kondromatosi sinobiala: giltzadura- sinobialen gainerako mesenkimaletik metaplasia kartilaginoso bat da. Kondromatosi sinobialak sinobialean eta giltzaduraren barrunbean **nodulu kartilaginosoz osaketa du ezaugarri** (gorputz askeak).

Klinika: pazienteak minaz kexatzen dira. Giltzadura blokeoa, karrasketa, eta ehotzeko sentasioa daukatela diote. Batzutan gorputz askea haztatu ahal da eta giltzadura astintzen dute desblokeatzeko. Blokeoak giltzaduraren aurpegiak harrapatuta geratzeagatik agertzen dira, gorputz askeak giltzadura angelu batean blokeatzen du eta.



Giltzaduraren barneko gorputz askeak: diagnostikoa



1-Historia klinikoa

2-Azterketa fisikoa (blokeoa, gorputz artikularren haztapena)

3-Erradiografia sinplea. Erradiografian ezer behatzen ez bada, **EMN** bat egitea posible da ehun bigunen gorputz askeak modu objetiboan baieztatzeko (hala nola, meniskoak eta kartilagoak).



Kondromatosi
sinobiala

Giltzaduraren barneko gorputz askeak: tratamendua



Gorputz askeak giltzaduratik erauzi behar dira.

Giltzadura kartilagoaren zati handiak izanez gero, osteokondritis disekatzailean bezala, hobe da zatiak hezurrera finkatzea.

Ohikoa da zauri txikiko teknika bat erabiltzea, hots, artroskopia bat.

Zenbait giltzaduraren gorputz handiegiak izatean, teknika ireki baten bidezko erauzketa egiten da.



Ebakuntza kirurgikoaren ondoren, fisioterapia beharrezkoa da.

Giltzaduraren barneko gorputz askeak : aldaka

Osteokondritis disektailea



Torlojua



Aldakako giltzadura- kartilagoaren haustura. Eskuinean behatzen da nola eusten diren kartilagoak torlojuz.

Artrosia



Pazientearen erradiografia urtebete pasa ondoren

Artrosia



Giltzaduraren barneko gorputz askeak: giltzadura tenporomandibularra




Fig. 1a. Reconstrucción TC-3D donde se observa un gran número de nódulos calcificados en la región anteroexterna de la ATM izquierda.



3D-CT reconstruction where a huge number of calcified nodules can be observed in the antero-external left TMJ area.

Kondromatosi sinobiala

Giltzaduraren barneko gorputz askeak:
giltzadura tenporomandibularra




Giltzaduraren barneko gorputz askeak: giltzadura tenporomandibularra



2A.Irudia. Giltzaduraren barneko gorputz askeak ATM-eko artrosi aurreratuta kasu batean; artroskopiaren bitartez ikusiak.

2B.Irudia. Ustekabeko aurkikuntza, gorputz aske kartilaginoso bat masailezur traumatismo baten ondoren.

Giltzaduraren barneko gorputz askeak: giltzadura tenporomandibularra



Giltzaduraren barneko gorputz askeak: giltzadura tenporomandibularra



2a.Irudia: ATM artroskopiaren irudiak behatzen dira, gorputz aske ugari ikusten dira goiko giltzadura hutsunea betetzen.